

Asier Asua - Gorka Virto - Mikel Zubeldia
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

Joan Mari Irigoien	3
Sarrera	4
Odolean neraman	
• Kokapena	4
• Gaia	5
• Argumentua	5
• Istoriaa	5
• Pertsonaiak	7
• Egituraketa	7
• Baliabideak	8
Iritzia	9
Bibliografia eta webgrafia	10

Joan Mari Irigoien


Joan Mari 1948ko irailaren 30ean jaio zen Gipuzkoan, Altza izeneko auzo batean. Nahiz eta ingeniaritza ikasi, euskal idazlea da.

Gaztea zenean, Errealaren bigarren taldeko jokalaria izan zen baina hori utzi eta Venezuelara joan zen. Hor hainbat idazle famatu ezagutu zituen, adibidez, García Márquez, Benedetti... Venezuelatik bueltan, Egin egunkarian zuzentzaile aritu zen, irakaslea ere izan da eta ETBrako hainbat lan egin ditu.

Joan Mari Irigoien hogeita lau urtez idazle profesional moduan aritu zen Elkar argitaletxearekin lan egiten, baina 2013 urrian, osasun arazoak zirela eta, jubilatatu behar izan zuen.

Hona hemen Irigoienen obra batzuk:

- Nobelak: Babilonia (1989), Consummatumest (1993), Kalamidadeen liburua (1996), Lur bat haratago (2000), Ipuin batean bezala (2002), Odolean neraman (2004) ...
- Poesia: Denborak ez zuen nora (1989), Hautsa eta maitemina (1998), Letra txikiaz bada ere (2002) ...
- Haur eta gazte literatura: Metak eta kometak (1994), Apaiz zaharraren gitarra (1996), Komunista.com (2005) ...
- Biografia: Lope Agirre (1979)



Sarrera

Liburu hau azaroaren 2004. urtean argitaratu zen nobela umoretsu eta kritikoa futbolaren munduan girotuta. Eneko Ortega izeneko mutil baten istorioa kontatzen du. Eneko oso ona da futbolean eta bere ametsa futbol izar bat bihurtzea da. Enekok bere ametsa lortuko du eta arrakastatsua izango da, baina honen zama ere jasoko du. Nahiz eta nahi duen guztia lortu, bizi izango duen esperientzia guztiak droga munduan sartuko dute Eneko.

Istoria Bartzelonan eta Gipuzkoan kokatuta dago, batez ere, azken honetan. Protagonistaz gain, Enekoren gurasoak, amama Sinforosa eta Montse dira garrantzi handiena dutenak.

Genero narratiboa dauka eta narratzaile pertsonaia erabiltzen du. Enekok lehenengo pertsonan kontatzen ditu bere esperientziak. Baita ere hainbat baliabide estilistiko daude.

Kokapena

Istoria Gipuzkoako herri batean gertatzen da, zehatz ez dakigu zein herritan, baina dirudienez Donostiatik gertu dagoen herri batean zeren eta liburuan zenbaitetan joaten dira hirira zerbait egitera. Baita ere Bartzelonan kokatzen da istorioa, zeren eta Eneko istorioaren momentu batean Bartzelonara joaten da bizitzera.

Pertsonaia nagusiak Eneko, amona Sinforosa eta Enekoren gurasoak eta Montse dira. Pertsonaia sekundario batzuk Iker, anaia Jaxinto eta Ritxar dira.

Gaia

Enekok txikitatik futbolaria izan nahi du, eta denborarekin bere ametsa lortzen du Barça eta Errealean jokatuz. Horrekin lortzen duen arrakasta, ondorio batzuk ekarriko ditu. Guzti honekin gure ingurumenaren gizarteari buruz hitz egiten du, futbolaria famatu baten bizitzan oinarrituta.

Argumentua

Gipuzkoako herri batean Eneko Ortega deituriko mutiko bat bizi da eta bere ametsa futbolaria izatea da. Berarekin bere amona Josefina, bere aita Andoni eta bere ama bizi dira, etxeko lehenengo solairuan duten tabernan lan egiten dute.

Urteak pasata Eneko Sportingera ailegatzen da eta hortik Errealera, gero Barça eta azkenik berriz Errealera. Emakume batekin ezkontzen da baina arrazoi batzuegatik dibortziatu egiten dira. Azkenean futbola uzten du drogengatik, baina zorionez Iker ezagutzen du eta maitemintzen da.

Istoria

- Eneko ume bat zenetik asko entrenatu zuen bere aitarekin eta 20 urterekin Errealean jolasten hasten da.

- Talde honetan bere gaitasuna argira ateratzen da eta ospe handia lortzen du. Ondorioz, Barçak Eneko fitxatzen du.
- Bartzelona bizi zenean Montse ezagutzen du eta lehengo aldiz txortan egiten du. Baina, egun baterako zena erlazio bihurtzen da. Elkarrekin bizitzera joaten dira, gurasoak ezagutzen dituzte eta azkenean ezkontzen dira.
- Adelaren aita eta etnologo famatu bat haiekin afaltzera doaz. Hurrengo goizean Enekok Montsek etnologoarekin txortan egin ote duen susmoa dauka. Eztabaida bat dute eta dibortzioan amaitzen du.
- Dibortzioa eta gero partidu txar batzuk izaten ditu baina gero bere ogibidean konzentratzen da eta emaitza onak lortzen ditu.
- Jarraitzaile asko ditu (gehienak neskak) gehienak sinadurak edo argazkiak eskatzen dizkiote. Egun batean Adela deituriko neska batek berarekin sexua izan nahi du, eta hori egiten dute, baina, segurtasunik gabe.
- Zoritxarrez, seme bat du eta judiziotan galtzen du, ondorioz, hilero diru kantitate bat eman behar dio.
- Gertaera hori eta gero dena beherantz doa; txarto jolasten du futbolearen eta drogetan sartzen da.
- Behin, droga gehiegi hartzen ditu eta bi egun egoten da koman. Bartzelonatik Gipuzkoara itzultzen da. Han Iker ezagutzen du, bere mutil-laguna.
- Adela hiltzen da eta Eneko geratzen da umearekin.

Pertsonaiak

Eneko Ortega. Istorioko protagonista da. Txikitatik futbola gustatzen zitzaion, zaletasun hori familiarik zetorkion. Oso ondo jokatzen zuen futbolean, hasteko bere auzoko taldean jolasten zuen, baina gero Sportingera, Errealera, Barçara, Espainiako selekziora eta Euskal Herriko selekziora joan zen. 30 urterekin futbola utzi behar izan zuen drogengatik, eta zorionez Iker ezagutu eta homosexuala zela konturatu zen.

Andoni. Enekoren aita zen eta bera bezala, futbol zalea eta Errealekoa. Andoni izan zen Enekori sartu ziona buruan goi-mailako jokalaria izateko ideia. Taberna bat zuen baina bere ametsa jatetxe on bat eraikitzea zen. Arazok zituen alkoholarekin eta horregatik oso berritsua zen. Behin baino gehiagotan arazo larriak eduki zituen eta medikuarenera eraman behar izan zuten.

Pilar. Enekoren ama zen, hau ere futbol zalea eta Erreal zalea zen. Bere emaztearen sukaldean lan egiten zuen. Andonirekin hainbat liskar edukitzen zituen baina ez ziren inoiz dibortziatu.

Montse. Enekoren emaztea izan zen, baina arazo batzuegatik dibortziatu egin ziren. Oso neskatxo polita zen, ile horikoa. Kotxe famatu baten iragarkian agertzen. Dirua oso gustuko zuen eta horregatik hainbat eta hainbat famatuekin egon zen. Ohitura arraro bat zeukan, oheratzen zen bakoitzarekin, barrabiletatik eta burutik bi ile kentzen zizkien eta gero hiltzen zirenean ileak saldu eta diru asko irabazten zuen.

Egituraketa

Kapitulutan banatuta dago eta flash-back erara kontatuta dago, hau da, Enekok bizitako esperientziak ez daude orden konkretu batean kontaturik; Eneko mutiko bat denetik, familia bat osatzen duenera arte. Nobelaren atal batzuetan Enekok gogora ekartzen ditu txikitan bizi izandako gertaera batzuk. Istorioaren narratzailea Eneko da.

Baliabideak

Istorio barne elkarrizketa da zeren eta Enekok txikia denetik nagusia den arte gertatzen zaion esperientziak kontatzen ditu, gainera horrela bere pentsamenduak eta sentimenduak adierazten ditu. Baita ere pertsonaien artean hainbat elkarrizketa daude hika forman idatzita. Narratzaileak lehenaldia eta lehenengo pertsonan hitz egiten du. Idazleak hainbat deskribapen egiten ditu eta hori oso ona da pertsonaiak hobeto ezagutzeko.

Hitz asko oso arraroak dira baina testuinguruarekin istorioa oso ondo ulertzen da.

Baliabide estilistiko batzuk:

- Metaforak:

<...Montse uholde bat zen esana dut...> (158)

- Konparazioak:

<...ezpainak ezpainetan, erlea lorean bezala.> (164)

Iritzia

Liburu hau oso entretenigarria da arrazoi batzuegatik. Horietako bat da futbolari eta sexuari buruz doalako eta gai horiek jende askok gustuko ditu. Bestea, ingurunean dauden arazoak islatzen dituelako, hau da, drogak eta alkohola. Arazo horiek gazte askok sufritzen dituzte eta liburu honekin ba agian zerbait hausnartu ahal dute.

Obra hau ulertzeko oso erraza da, hasiera izan ezik. Irakurtzen hastean ez da ezer ulertzen baina gero eta kapitulu gehiago irakurrita, oso ondo ulertzen da. Hitz arraro asko erabiltzen ditu, baina testuinguruarekin arazo hori konpontzen da.

Istorio guztia igarotzen du protagonista txikia zenetik, handia izan zenera arte. Horrek misterio gehiago ematen dizu zeren eta txikia denean ulertzen da nola bizitza ez oso ona baina bai oso interesgarria daukala eta orduan gehiago irakurri nahi duzu. Gainera kontatzeko modua klasikoena baina hobereena da, narratzaileak istorioa kontatzen du eta elkarrizketa asko ere sartzen ditu.

Liburuaren gauzarik txarrena da kapitulu askotan banatuta eta batzuk oso luzeak direla, gainera ez dago marrazki bat ere. Baina hau ez da aitzakia, obra honek merezi du irakurtzea.

Bibliografia

Odolean neraman, Joan Mari Irigoien. Elkar.

Webgrafia

http://eu.wikipedia.org/wiki/Joan_Mari_Irigoien

http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp

[http://www.elkarargitaletxea.com/default.cfm?
hizkuntza=4&atala=artikulua_ikusi&id_produktoa=G81.01247](http://www.elkarargitaletxea.com/default.cfm?hizkuntza=4&atala=artikulua_ikusi&id_produktoa=G81.01247)

<http://euskaljakintza.com/odolean-neraman-joan-mari-irigoien/>

<http://sanju.mundua.com/>

<http://www.xuxen.com/aldatu.php>